

HIRU EGUN OLINPON

Ordu batzuk badira ilundu duela Tesalonikatik abiatu den autobusak Litotxoroko plaza nagusian utzi gaituenean. Duela hamabost egun hasi da udazkena, urriko lehenengo egunetan gaude murgilduta. Herriko teilatu gorrien gainetik, iluntasunean galduta, hor nonbait egon behar dute Olinpoko horma izugarriek. Egunsentira arte itxaron besterik ezin dugu egin, olinpiar jainkoen egoitza parez-pare ikusteko.

TESTUA ETA ARGAZKIAK



Aimar Gutierrez Bidarte
(1995, Areta)

Jose Mari Gutierrez Angulo
(1954, Lendo-obeiti)

Aiaraldea Komunikabideko kazetari eta argazkilaria. Geologiako ikasketak egin ditu, mendiek gordetzen dituzten sekretuak argitu nahian.

Maisu erretiratua. Laudion bizi da. Pyrenaic an otso-hesiei buruzko artikulua argitaratu ditu, baita Larruazabalgo Batzarrari buruzkoak ere, bertako jaioterria baita.

Guztira berrogeita hamabost gailur ditu Olinpo mendiguneak 2000 metroen langa gainditzen dutenak. Gure helburua Mytikas (2918 m) da, guztien artean garaiena eta Greziako sabaia. Balkanetako penintsulako bigarren mendirik altuena da ere, Bulgariako hego-mendebaldean dagoen Musalak gainditua soilik.

15 kilometro eskasek banatzen dute Egeo itsasoa eta Olinpo mendateko gailurrik altuena. Bi puntu horien artean aurkitzen da Litotxoro (300 m). Azken markadetan asko hazi den herria da. Herri bizia, kotidianoa; horren lekuko dira kale

nagusiko taberna eta negozio ugariak. Dion-Olympos udalerriko hiriburua ere bada Litotxoro, eta, noski Olinpoko parke nazionalerako sarrera nagusia, herriaren erakargarritasun turistikoa nagusia. Enipeas ibaiak sorturiko arroila ikusgarriaren ekialdeko muturrean aurkitzen da Litotxoro, mundu gizatiarraren eta jainkotarraren arteko muga naturala irudikatuz. Hiriko plaza nagusitik abiatuta, eta aipatutako arroilan gora, 20 kilometroko errepide bihurturik batek lotzen ditu Litotxoro eta Prioniako aparkalekua (1100 m), Olinpora igotzeko bide nagusien abiapuntua.



Babes-neurriak ez dira soberan Skala eta Mytikas gailurren arteko ibilbidean

Prioniara igo aurretik ezinbestekoa dugu Litotxoroko erdigunean dagoen *55 peaks* kirol-dendako Monikari esker ona adieraztea. 2023ko udaberrian goxo artatu gintuen inguruko mendietan inor ez zebilen garaian, eta oraingoan ere arretaz entzun ditu gure asmoak. Zorte ona opa digu, ziur da Mytikaseko gailurra zapalduko dugula.

Prioniatik Spilios Agapitos aterpera

Eguerdia baino zertxobait lehenago iritsi gara Prioniara, Litotxorotik autoz iritsi daitekeen punturik urrunena. Taberna txiki eta komun publikoz hornitutako mendizaleen topalekua da Prionia. Bertatik, 1000 metroko desnibelak urruntzen gaitu Spilios Agapitos aterpetik. Bideak baso sakonean barrena egiten du gora, Enipeas ibaiaren ibilguaren kontra. Arroka biluzia dago bistan eta Enipeas ibaiaren emaria ezaren hurrengo da sasoi honetan. Behin baino gehiagotan zeharkatu dugu ibaiaren ibilgu lehorra, errekarri erraldioen gainetik igaroz. Bideak gora egin ahala pagadia pinudi bilakatzen da. Udazken koloreak ari dira gailentzen han-hemenka, oraindik ere pagoen berde distiratsua nagusi den arren. Atzean daukagu Golko Termaikoa, eta tarteka Athos mendiaren irudi lauso-

tua urrunean ikusteko parada eskaintzen digute basoko soilguneek. Bi ordu eta erdian bidexka malkartsuak Spilios Agapitos aterpearen aurrean utzi gaitu.

Bi ordu eta erdian bidexka malkartsuak Spilios Agapitos aterpearen aurrean utzi gaitu

Inguruko zuhaitzen artean gailentzen den malkar baten gainean dago kokatuta Spilios Agapitos aterpea, pinudi baten erdian. Aterpeak Litotxoro eta Egeo itsasoaren bista paregabea eskaintzen du. Pinudia zulatu eta eguzki-izpiek atsegin berotzen dituzte aterpearen inguruak. Asko dira udazkeneko eguzkiaren epeltasunaz gozaten ari diren mendizaleak. Izan ere, Olinpoko ton-torrek menderatu nahi dituzten horientzat ez ezik, paregabeko baso eta ibilbide errazagoak helburu dituzte txangozale askoren topalekua ere bada Spilios Agapitos. Badira eskalatzailak, baina baita ikasle taldeak eta Grezia alderik alde zeharkatzen ari diren "motxileroak" ere. Aterpea kudeatzen duen langile taldeak eskarmentua du mendizale oldeari aurre egiten. Erreskadan bota dizkigute aterpeari buruzko argibide guztiak, mezua automatizatu balute bezala, eta segituan bidali gaituzte gure logelara. Dutxa

Christos Kakalos aterpea



Guztira berrogeita hamabost gailur ditu Olinpo mendiguneak 2000 metroen langa gainditzen dutenak

Egunak zoragarri argitu du. Arroila sakonaren gainetik Skala (2866 m), Mytikas (2918 m), Stefani (2912 m) eta Skourta (2478 m) gailurrek zilarrezko orbana marrazten dute pinudiaren eta zeru urdinaren artean. Ez gabiltza presaka; hiru egun ditugu Olinporen bihotzean bizitzeko.



Spilios Agapitoserako bidexkan Enipeas ibaiaren ibilgua, guztiz lehorra

hotz azkar bat eta arratsaldeaz disfrutatzeraz atera gara aterpeko begiratokira.

Laburra izan da eguzkipean gozamina. Arratsaldeak aurrera egin ahala Mytikas mendiaren atzean ezkatatu da eguna eta tenperaturak nabarmen egin du behera aterpeko ingurumarietan. Hotzetik babesteko jantokian bilatu dugu babesa, beste hainbeste mendizalerekin batera. Hara non, bikote euskaldun batekin elkarbanatu dugu afaria. Euskaldunak ez ezik, Amurrioko bizilagunak dira, auzokideak. Herriko ezagunen zerrenda birpasatuz iritsi da oheratzeko ordua. Bihar Mytikasera goaz.

Greziako gailurreraino

Garaiz jaiki gara. Lehenengoak gara logelatik ateratzen. Goizaldeko bostak dira. Zerua gorri tindatu da ekialdetik eta gutxika zeru ilunari tokia kentzen doa. Atzo ez bezala, Athos mendiko piramidea ondo definitua ikus dezakegu ortzimuga gorriaren kontra. Han ginen duela hiru egun. Gaurkoan beste mendi sakratu bat dugu helburu.

Kaskoa oso gomendagarria da, eta, behar-beharrezkoa ez bada ere, baita gutxieneko eskalada-ekipo bat ere

Motxilak soinean hartu eta Mytikasera igotzeko bideari ekin diogu. Eguzkia Egeo itsasoaren gainetik altxatu denerako basoa desagertzen den altueran gaude dagoneko. Egunsentiarekin batera Olinpoko gailurrak gorri tindatuta ageri dira gure gainetik. 2500 metrotik aurrera landaredia guztiz desagertzen da Olinpo mendian.

Bide malkartsuan gora jarraitu dugu sigi-saga, pauso bakoitzarekin desnibel nabaria gaindituz. Handik gutxira bidegurutze batekin egin dugu topo. Eskuinean dugu Zonaria izeneko bidexka, jaitsieran Musen Goi-Ordokira eramango gaituena. Guk aurrera jarraitu dugu, mendebalderantz. Lepo batera iritsi garenean iparraldeko noranzkoa hartu dute gure urratsek, eta hare desnibel handiagoa hartu du bideak; kilometro eskasean 400 metroko altuera igo dugu. Irtsi gara Skala mendira, bi ordu Spilios Agapitos aterpea atzean utzi dugunetik.

Olinpo mendateko gailur garrantzitsuenetako bat da Skala eta Mytikas mendiaren bista paregabeak eskaintzen ditu. Skala eta Mytikas gailurren arteko bideari Kakoskala deritzo, "eskailera txarra" greziarrez. Ibilbidearen zatirik zailena da. Skala mendiaren gailurretik bertatik abiatzen den tximinia batetik jaitsi behar da, ertz batzuk gainditu, arriskutsuak diren zenbait pasabide igaro eta Mytikas mendiaren gailurreraino igotzeko azken pala aldapatsu eta bertikalaren hasiera topatuko du mendizaleak.

Azken ehun metroak gainditzeko eskalada txiki eta erraz bat egin behar da, une bakar batean ere II. graduako zailtasuna gainditzeko ez duena eta bertigoa dutenentzako aproposa ez dena. Skalatik Mytikasera jarraitu beharreko gandorrek amildegia malkartsu eta sakonen gainetik egiten du bidea, eta ez dira gutxi bertan dauden airetiko pausuak. Kaskoa oso gomendagarria da, eta, behar-beharrezkoa ez bada ere, baita gutxieneko eskalada-ekipo bat ere.

Azken ehun metroak gainditzeko eskalada txiki eta erraz bat egin behar da, une bakar batean ere II. graduako zailtasuna gainditzeko ez duena eta bertigoa dutenentzako aproposa ez dena



Tximiniatik jaitsi eta harkaitz erraldoia-
ren ekialdeko aurpegian zintzilik egin
dugu Kakoskala bidean aurrera. Azken
pala desafiatzailea menderatu eta iritsi
gara Mytikasera. Ordubete baino gehiago
behar izan dugu Skalatik tartea egiteko.

Besarkada batekin ospatu dugu erron-
karen arrakasta. Dozena bat mendizalek
partekatzen dute gailurra gurekin, tar-
tean bezperan ezagututako Amurrioko
bikotea baita hirugarren mendizale na-
far bat, ere. Protokolo-argazkiak aterata
beheranzko bidea hartzeko unea iritsi
zaigu.

Musen Ordokira

Igoeran baliatutako zuhurtzia berberarekin
jaitsi dugu Kakoskala bidea. Ordubeteren
ostean atera gara Skala mendiko
tximiniatik. Spilios Agapitos aterpetik
igotzeko baliatutako bidetik jarraitu



dugu, 400 metroko desnibela jaitsi eta
Zonaria izeneko bidearen bidegurutzera
iritsi garen arte. Bidezidor honek urrutian
ikusten den Musen Ordokira garamatza,

bertan dugu eguneko bigarren helmuga:
Christos Kakalos aterpea.

Lehenengo metrotan arroka solteen
artetik gorantz egiten du bideak labarrean

Mytikas. Jainko olinpikoen kristalezko jauregietan





Musen Ordokia, Christos Kakalos aterpea eta Stefani mendi-puska

eskegita dagoen bide estu eta horizontala bilakatu aurretik. Gu bakarrik gaude eta txikitasun sentazioa izugarria da. Gure gainean ditugu Olinpoko gailur nagusi eta zorrotzak. Oinen azpian, ordea, Prioniako baso itxian amaitzen den ehunka metroko amildegia sakona besterik ez. Asko dira kota altuetatik erortzen diren arroka puskak, komeni da bide estua kaskoa jantzita zeharkatzea.

Christos Kakalos inguruko aterperik txikiena da. Egongela txiki bat eta literaz beteriko ganbara estu bat, xarmarik ez zaio falta

Aurrera egin ahala uneoro ari gara Christos Kakalos aterpea ikusten. Eguzkiak berotutako larre berde baten ertzean

dago eraikin xumea, amildegia gainean zintzilik. Inguruotan oso ugariak diren mendiko-ahuntzen konpainiak atera gaitu gure bakardadetik, eta gure gainean ditugu, gure urratsak adi-adi jarraituz.

Christos Kakalos inguruko aterperik txikiena da. Egongela txiki bat eta literaz beteriko ganbara estu bat, xarmarik ez zaio falta. Ataritik Stefani mendia ikus daiteke parez-pare, Zeusen tronua ere deitua.



Ezizen aproposa ezbairik gabe, bertako horma bertikalek jarleku erraldoiaren itxura ematen baitiote.

Arratsaldea eguzkitan igaro dugu, mendiko ahuntzen konpainia isilean, mendi malkartsuei begira. Irrati katearen musika hotsa da inguruko zarata bakarra. Home-rok idatzita utzitakoaren arabera aurrean ditugun arroken artean eraiki zituzten jainko greziarrek haien kristalezko jaure-



Skourtaren magalean eta Egeoren aurrean

giak. Halakorik ez dugu ikusten, baina miresteko moduko paisaia da berdin-berdin.

Mundu lurtarrera buelta

Bezperan egin bezala gorri esnatu da eguna. Ekaitz hodeien azpitik sutan ageri da ortzimuga, laranja tindatuz Zeusen Tro-nua eta Greziako gailurra. Menditzarrok bizkarrean utzi eta mendebaldera jo dugu, beherezko bidea hartzeko asmoz.

Skourtatik egingo dugu Prioniarainoko bidea. Horren aurretik Musen Ordokiaren harresia gaingitu behar dugu, Presama Giosou izeneko pasabidea baliatuta. Urte sasoi honetan ez du aparteko zailtasunik erakusten bideak. Neguan, ordea, inguru arrisksua da, eta badira bidea ziurtasunez egiteko zenbait kable eta helduleku. Pasabidea gaingituta bidezidor harritsu batek azkar batean eraman gaitu Skourta mendira. Haizeak zakar jotzen du, eta zeruan gerroz eta ilunagoak dira hodeiak. Ekaitz hodeien mehatxupean bada ere, egin beharrekoak eginda ari gara Skourta mendian behera, eta, bizi-bizi goaz, euri tantengandik ihesi.

Jaitsiera nekeza da, inoiz amaitzen ez diren horietakoa

Bideak pinudi zahar batean zehar egiten du aurrera. Bi ordu pasatxo behar izan ditugu Musen Ordokitik Petrostungako aterpera heltzeko, bidean argazkiak

egiteko behar beste denbora hartuta, hori bai. Aterpea zabalik aurkitu dugu, eta kafea hartzeko geldiune bat egitea erabaki dugu.

Petrostunga atzean utzita, Prionia dugu hurrengo helburua. Gure abenturaren hasiera eta amaiera. Zirkulua ixteko unea. Bideak ekialdera garamatza bueltan berriro. Bide laua da, amildegian eskegitako pinudian barrena. Halako batean, ezkerrera biratu eta zorrotz egiten du behera. Azken bi kilometroak dira hauek, eta 700 metroko desnibela jaitsi behar dugu oraindik abiapuntura bueltatzeko. Jaitziera nekeza da, inoiz amaitzen ez diren horietakoa. Ordu-bete behar izan dugu aparkalekura iristeko.

Hemen gara berriz, hasierako puntuan, eta abenturari ganorazko amaiera ematea besterik ez dagokigu. Konstantinosek emandako gomendioa jarraitzea erabaki dugu. Astebete lehenago ezagutu genuen Konstantinos Tesaliako mendizalea, Athos mendiko gure zeharkaldian. Olinpoko igoera Prioniako arkume-zopa dastatuz amaitu behar genuela esan zigun hark, eta hala egin dugu. Nektar eta anbrosiarik ez dago jatetxe txikiko kartan, baina ez dago olinpiar jainkoen edari eta janari zerutiarren beharrik ibilbideari amaiera zoriontsua emateko. Doakio hemendik besarkada bana Konstantinosi.

2024ko urriaren 6an, 7an eta 8an Jose Mari Gutierrez Angulok eta Aimar Gutierrez Bidartek egindako jarduerak. → Erabilitako mapa: Χάρτης Ολύμπου / Map of Mt. Olympus [Mapa]. 1:10000 eta 1:30000. Ed Anavasi. 2022.